

## ZER EGIN DEZAKEZU ZUK?

- 1. Haritik tira egin.** Ikertu nola ekoizten duen zure marka gogokoena.
- 2. Ezagutu Merkataritza Justuaren ehungintza produktuak** gure erakundeek kudeatutako dendetan eta saltokietan. 140 baino gehiago daude autonomia erkidego guztietan: [www.comerciojusto.org/tiendas](http://www.comerciojusto.org/tiendas)
- 3. Egizu bat aktibo dauden kanpainen** jantzen duzun arroparen jatorria eta zein baldintzetan ekoizten den aztertzeko. Adibidez, Arropa Garbia Kanpaina: [www.ropalimpia.org/es/](http://www.ropalimpia.org/es/)
- 4. Arrazionalizatu zure kontsumoa.** Erosi arropa gutxiago eta kalitate hobea. *Fast fashion* edo *moda azkarra* ereduak jantzien errotazio indartsu batean oinarritzen da, kontsumitzaileei etengabe nobedadeak eskaintzeko helburuarekin. Betebehar horrek presioa sortzen du langileengan, dauden entrega epeak bete behar dituztelako.
- 5. Hautatu ehun naturalak,** modu ekologikoan ekoiztu direnak sintetiko edo artifizialak beharrean. Birziklatu daitezke eta ez dira hain kutsakorrak, ekoiztu diren moduagatik eta sortzen dituzten hondakinen kudeaketagatik.

**Bidezko Merkataritza** sistema justu eta desberdina da eta herrien garapena eta pobrezia kontrako borroka ditu helburu gisa.

Hauetan oinarritzen da:

- **Lan eta soldata baldintza egokiak** hegoaldeko langileentzat, duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.
- **Haur esplotaziorik ez egotea**
- **Berdintasuna gizonen eta emakumeen artean:** Biek, gizon zein emakumeek, tratatu eta ordainsari bera jasoko dute.
- **Ingurumena errespetatzea.** Gaiak hauek sortzen diren ingurumenarekiko errespetua erakusten duten prozeduren bidez ekoiztuko dira.

### JARRAIGUZU:



[www.facebook.com/CEComercioJusto](http://www.facebook.com/CEComercioJusto)



@CEComercioJusto



[www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo](http://www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo)



CEComercioJusto

[www.comerciojusto.org](http://www.comerciojusto.org)

ZATOZ BIDEZKO MERKATARITZAREN  
MUNDUKO EGUNA OSPATZERA ETA EGIN EZAZU

# TIRA HARITIK...



## ZER DAKIZU JANZTEN DUZUN ARROPAREN INGURUAN?

Gure herrialdean, pertsona bakoitzak **437 euro inguru gastatzen du arropetan** urte batean, baina ba al dugu janzten ditugun arropen buruzko informazioa...?

Marka nagusiak diseinuan eta banaketan espezializatu dira. Kostuak merkatzeko, jantzigintza azpikontratatu egiten da Hego-ekialdeko Asiako, Indiako edo Marokoko ehungintza tailerrekin, non langileek, emakumeak gehienak, jantziak josten dituzten soldata ziztrinen truke 12, 14 edo/eta 16 orduko lanaldietan zehar, segurtasun eta higiene baldintza minimoak ere betetzen ez dituzten tailerretan.

## HARITIK EGIN TIRA...

Gure jantziek dituzten etiketek ematen digute hauen eraketari, jatorriari eta nola garbitzeari buruzko informazioa, baina badaude esaten ez diren gauza asko ere:

- Mundu osoko 21 milioi pertsonak lan egiten dute derrigorrezko lan baldintzetan, **esklabutza modernoak** dituen forma desberdinen bidez, mirabetza zorrak direla eta, esate baterako. Ehungintza eta nekazaritza dira esplotazio mota hau gehien ematen den sektoreak.
- **Galtza bakero batzuk ekoizteko ia 7.000 litro ur behar dira.**



©CHETNA

- India, Uzbekistan, Txina, Bangladesh, Egipto, Tailandia et Pakistan dira **ehungintza ekoizpen katean zehar adingabeko gehien dauden** herrialdeak.
- **Heriotza eta joskintza** binomio arrunta dira. Lau arropa fabriken egoitzak zeuden Bangladesheko Rana Plaza izeneko eraikina amildu egon zen 2013an. Ondorioz 1.138 pertsona hil eta 1.500 baino gehiago zauritu ziren.

**Ehungintza arruntaren zati handi baten atzean dauden errealitate bidegabeen haritik egin tira eta...**

## ... HAUTATU BIDEZKO MERKATARITZA

Zure erosketak onura emango dien ekoizle taldeen adibide batzuk emango dizkizugu:

### *Mahaguthi (Nepal)*

1.200 artisau biltzen ditu talde txikietan antolatuta, gehienak emakumeak dira. Salmentetatik ateratzen diren onurak emakumeei eta adingabeei ematen zaizkie, elikadura, arropak, etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta prestakuntza profesionala eskainiz.

### *Mandaluyong-eko tailerra (Filipinak)*

Baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeek egiten dute lan bertan, gehienak bizitzeko diru-sarrerara nahikorik ez duten amak dira. Tailerlean prestakuntza profesionala ematen zaie, baita laneko eta emakumeen eskubideei buruzko informazioa ere.



© TALLER DE SOLIDARIDAD

### *Agrocel (India)*

Erabiltzen dituzten laborantza metodoak naturalak dira. Ez dute produktu kimikorik erabiltzen, kaltegarriak direlako lurrerako eta nekazarien osasunerako. Ekoizpenagatik prezio duina ordaintzeaz gain (kotoi arruntarena baino handiagoa), nazioarteko merkatuetan sartzeko aukera dute, laborantzarako materiala ematen zaie eta aholkularitza eskaintzen zaie.